

2023/2024 NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA

1. fasea

(2022-10-25)

Zer da 1. fasea?

1. faseko norakoak

Egutegia

Nola egin zure 1. faseko eskaera

Zer egin behar duzun norakoren bat esleitzen bazaizu

Eskolarekin harremana

Zer da 1. fasea?

1. fasea (edo aurretiko fasea), Eskolan egiten den preselektzio fase bat da, “bereziak” diren zenbait norakotako plazak esleitzeko: Titulazio Bikoitzak, sareak eta berariazko norako batzuk (ikus zerrrenda behean). **Norako horietakoren bat lortu nahi izatekotan, nahitaezkoa da fase honetan parte hartzea.**

KONTUAN HARTZEKO:

- 1. faseko norakoak zure interesakoak ez izatekotan, **EZ DUZU ORAIN PARTE HARTU BEHAR** Itxaron GAUR-en prozesu ofiziala ireki arte zure eskaera egiteko, interesatzen zaizkizun norakoekin.
- Begira ezazu gure webgunean daukazu zure titulaziorako norako-zerrrenda. **1. faseko norakoak zure titulaziorako ezkaintzen ez badira, EZ DUZU ORAIN PARTE HARTU BEHAR.** Itxaron GAUR-en prozesu ofiziala ireki arte zure eskaera egiteko, zure titulaziorako diren eta interesatzen zaizkizun norakoekin.

1. faseko norakoak

Hauxe da **nahitaez** 1. fasean eskatu behar diren norakoen zerrrenda:

- Cranfield University. Titulazio bikoitza
- ENSAM. Titulazio bikoitza
- EPF. Titulazio bikoitza
- Fachhochschule Dortmund. Titulazio bikoitza
- Gävle. Titulazio bikoitza
- Illinois Tech (Chicago). Titulazio bikoitza
- IMT Atlantique. Titulazio bikoitza
- Indian Institute of Technology Bombay
- Global E3 USAsarea.
- GE4 Asia sarea
- GE4 América Latina sarea
- Tennessee Tech University
- Tianjin University of Science and Technology – TUST. Titulazio bikoitza
- University of British Columbia (Industria Ingeniaritzako Masterraren Eraikuntza espezialiteko ikasleentzat soilik)
- University of Cincinnati. Titulazio bikoitza

Egutegia

Kontuan izan behar dituzun data garrantzitsuenak gogorarazten dizkizugu:

- **2022ko azaroaren 2tik 9ra: eskaera** egiten duzu **Google formularioan**.
- **2022ko azaroaren 2tik 10era: Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Bulegoan ematen duzu nahitaezko dokumentazioa** (irakurri arreta handiz gure webgunean argitaratuta dagoen *2023/2024 epeak eta prozedurak – 1. fasea* dokumentua).
- **2022ko azaroaren 14ean, 12:00etan: behin-behineko plaza-banaketaren** argitalpena Nazioarteko Harremanen Bulegoaren ondoan dagoen tabloian (P1E2).
- **Plaza onartu behar duzu, edo plazari uko egin behar diozu, 2022ko azaroaren 15eko 12:00ak baino lehen, outgoing.eib@ehu.eus**–era mezu bat bidaliz. (*)
- **2022ko azaroaren 15ean, 16:00etan: behin-betiko plaza-banaketaren** argitalpena Nazioarteko Harremanen Bulegoaren ondoan dagoen tabloian (P1E2).
- GAUR-en egiten duzu zure eskaera, **abenduaren 5a baino lehen**.

(*) **OSO GARRANTZITSUA: Ezarritako epean onartzen ez baduzu ala uko egiten ez badiozu**, 1. faseko prozesuari uzten duzula ulertuko da, eta zuri esleitutako behin-behineko plaza beste pertsona bati emango zaio. Geroago mugikortasuna eskatu ahal izango duzu GAUR-en, baina ez 1. faseko norakoetara joateko

Nola egin zure 1. faseko eskaera

- 1. urratsa.-** Gure webgunean argitaratuta dagoen *2023/2024 mugikortasun-eskaera – 1. Fasea* dokumentuan dauden instrukzioak irakurtzen dituzu arreta handiz, eskaera egiteko.
- 2. urratsa.-** Formularioan sartzen zara eta zure datuak betetzen dituzu.
- 3. urratsa.-** Formularioan eskaintzen den norakoen zerrenda begiratzen duzu, eta zure titulaziorako diren eta interesatzen zaizkizun norakoak aukeratzen dituzu, zure lehentasun-ordenaren arabera.
- 4. urratsa.-** Behin eginda, eskaera inprimatzen duzu.
- 5. urratsa.-** ENVIAR botoia sakatzen duzu.
- 6. urratsa.-** Ezarritako epean, Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Bulegoan ematen duzu gure webgunean argitaratuta dagoen *2023/2024 epeak eta prozedurak – 1. fasea* fitxeroan adierazten den dokumentazioa. Zuk zeuk etorri ezin baduzu, bidali mezu bat [outgoing.eib@ehu.eus-era](mailto:outgoing.eib@ehu.eus), zure dokumentazioa emateko baimentzen duzun pertsonaren izen-abizenak eta NANA adieraziz.

Zer egin behar duzun norakoren bat esleitzen bazaizu

Behin-behineko plaza-banaketa argitaratzen denean, ea plaza esleitu zaizun begiratu behar duzu, eta norakoa onartu behar duzu emezu bat bidaliz. Jarraitu *Egutegia* atalean adierazitako instrukzioei, baita ere gure webgunean argitaratuta dagoen *2023/2024 epeak eta prozedurak – 1. fasea* fitxeroan adierazitakoei.

Eskolarekin harremana

Zure unibertsitate-trukearekin erlazio duten gai eta zalantza guztiak outgoing.eib@ehu.eus–era bidali behar dituzu. Gurekin harremanetan jar dezakezu ere 94 601 8228 telefonora deituz, edo Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan (P1E2 gelan), [jendaurreko ordutegian](#).